

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A2 B12 Eta beste hori?

Maila: A2

Helburua: Norbait identifikatzeko xedearekin, pertsonak deskribatzea.

Funtzioak: Pertsonen deskribapena egin eta datuak eskatu eta eman horiek identifikatzeko moduan



Azken ekintza: Binaka, euskaltegian hasi diren ikasle atzerritarrak deskribatu, eta besteak zein diren asmatu.

Ulertu dutenaren arabera, zein den zein adierazi.

Adierazpide linguistikoak:




- Aditz aspektua: -T(Z)EN ari + IZAN, dauka, darama
- Joskera: erreferentea duten erlatibozkoak, - (e)N *gizona* // *Nire ustez- Nik uste dut... (e)LA*
- Lexikoa: Lanbideak, tresnak, jantziak, adjektibo arruntak.

1- IKUSI AURRETIK

   1.1 Zein lanbidez ari dira?

Bideoan agertuko den egoeraren testuinguruan kokatzeko, binaka, bideoan agertuko zaizkien antzeko elkarrizketa laburra irakurri eta zein lanbidez ari diren asmatu beharko dute. Hizpide emateko, bi galdera ireki planteatuko dizkiegu itxurak duen garrantziaz hitz egin dezaten. Interesgarria izan daiteke, bide batez, lanbideen gaineko hiztegia lantzea. Jar dezatela zerrenda batean ezagutzen dituzten lanbideak, eta horiei lotutako tresnak.




2- IKUSI BITARTEAN

   2.1 Baietz asmatu!

Lehen atala entzun aurretik, entzungo dutenari buruz hipotesiak egitera bideratuko ditugu. Pista modura bideoaren irudi bat eta Amaiak esandako esaldi bat emango diegu. Honako bi galdera hauen erantzun zuzena aukeratuko dute. Ariketa egin ondoren, hipotesiak egiaztatzeko atal hori berriro entzutea komeniko litzateke. Hemen erantzun zuzenak:

Nola ikusten duzu Josu? *Oso urduri dago.*

Zergatik dago horrela? *Eskolako lanak pilatzen ari zaizkiolako.*

   2.2 Zein lanbide ote dute?

Ulermen xehea ebaluatzeko unea da. Elkarrizketako protagonistek esan dituztenak horiei dagokien lanbidearekin lotuko dituzte. Eta aldi berean, kasu bakoitzean nor esan dituen identifikatzea eskatuko diegu. Ondo ulertu ote duten jabetu daitezten, ikus dezatela berriro atal hori baina azpitoluekin, eta binaka erantzunak alderatuko dituzte. Hemen ariketaren erantzunak.

Eskuetan daraman kutxan erremintak izango ditu. *Arotza. Josuk*

Ez dute arkatza eramaten belarrarian. *Mekanikoa. Amaiak*

Buzoa du. *Mekanikoa. Josuk*

Arropa hori da bere uniforme. *Perfumeriako saltzailea. Amaiak*
Takoi horiek... *Botiketako bisitaria. Josuk*

3- IKUSI ONDOREN

3.1 Hizkuntzari erreparatu.

Bideoan entzun duten elkarrizketaren zati bat emanda, erlatibozko esaldiak identifikatuko dituzte. Ondoren, egiturari eta horren funtzioari erreparatzeko, binaka, bi galderari erantzungo diete. Hemen erantzunak:

1. Zertarako erabiltzen dugu - (e)N egitura? *Zerbait edo norbait identifikatzeko*
2. Kasu hauetan, non erantsi behar da -(e)N deklinabide-marka? *Aditz laguntzailean edo trinkoan*

Hurrengo orrialdean erlatibozkoen arau eta adibideen taula urdina izango dute, baina taula hau ariketa egin ondoren ikusiko dute.

3.2 Nortaz ari zara?

Argazki batetik abiatuta, bertan ageri diren zenbait pertsonari erreferentzia eginda, zer gertatu den kontatuko dute. Adibide modura, esaldi horiek osatzeko elementuak emango dizkiegu, baina hiru multzotan banatuta. Binaka jarri eta irudiari ondo erreparatuta, elementu horiek konbinatuz esaldiak osatuko dituzte. Kontuan hartu gehienetan esaldiak zuzen osatzeko aukera bat baino gehiago egongo dela. Esaldiak zuzen osatzea da kontua, eta argazkian deskribatzen den pertsona horri dagokiona adieraztea. Hemen erantzun zuzen posibleak:

Begira, ikusten duzu Mari Jaiaren aurrean dagoen emakume hori? Ba, hori gure irakasle berria da.
Panderoa jotzen ari den emakumeak mozkor galanta harrapatu zuen.
Ezkerraldean eserita dagoen mutikoa hurrengo egunean gaixotu egin zen.
Txapel berdea duen neska koxkorra amarekin haserretu zen.
Mari Jaiaren aurrean dagoen emakumeak bazkaria prestatu digu.

3.3 Euskaltegian: zein da zein?

Euskaltegiko ikasle-talde bat agertzen den argazkia izango da ataza honen abiapuntua. Horietako bi ikasle atzerritarrak dira, eta horiek zein diren erabaki eta izena jarriko diote lehendabizi. Nahi dituzten pistak emango dituzte besteek zein den zein asmatzeko moduan. Eredu bezala antzeko elkarrizketa bat emango diegu.

Atazan landu dutena hurrengo egunean modu askean praktikan jartzeko bide emango diegu. Horretarako, eskatu ikasleei hurrengo egunean ekartzeko argazki bat klasera (txikitako lagunena, familiakoa, opor batzuetakoa...) eta ikaskideei pistak emango dizkiete besteek zein den zein asmatu arte.

TRANSKRIPZIOA

AMAIA.— Josu, azken bolada honetan estu samar ikusten zaitut, zer duzu?

JOSU.— Ez dakit, baina ikasturtea aurrera doa eta lanak pilatzen ari zaizkigu. Egunetik egunera urduriago nago.

AMAIA.— Ba ahaztu lan-kontuak. Nik badaukat lasaitzeko botika.

JOSU.— A, bai? Eta zein da ba?

AMAIA.— Tarte batean masterraz ahaztea. Jolastu egingo dugu.

JOSU.— Zertan?

AMAIA.— Inguruko jendeari begiratu, eta, haien itxuragatik, zein lanbide daukaten asmatuko dugu!

ETENA

AMAIA.- Mm. Hango gizon hura: zure ustez, zein da bere lanbidea?

JOSU.— Ba, nire ustez, mekanikoa da.

AMAIA.— Zergatik?

JOSU.— Bueno... buzoa du eta eskuetan daraman kutxan erremintak izango ditu, seguru.

AMAIA.— Ez, ez. Nire ustez arotza da, mekanikoez ez dute arkatza eramaten belarrarian!

JOSU.— Egia da, kar-kar-kar! Eta beste emakume hori? Amaia sorgina, zure txanda!

AMAIA.— Zein, hori?

JOSU.— Ez, ez, ez. Eskuin aldera doan emakume gaztea.

AMAIA.— Brusa zuria, jertse urdina eta gona urdina... Ba... horrek perfumeria batean lan egiten du eta arropa da bere uniformeoa.

JOSU.— Bai zera! Emakume hori botiketara joaten den bisitari bat da, botikak saltzera. Takoi horiek...!

AMAIA.— Ai! Zu erotuta zaude...!